



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 11

101. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzan duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurkako jarrera agertzen baita. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea egia den Nafarroako Gobernuak luzatu egin nahi duela Osasuna futbol taldearen zelaian “Reyno de Navarra-Nafarroako Erresuma” goiburua erabiltzeko hitzarmena, Patxi Telletxea Ezkurrak jaunak egina (5. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak aztertzen ari ote den PFEZaren deflaktazioa eta eragingo lituzkeen ondorioak, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer asmo duen hezkuntza arloko mahai sektorialari dagozkion alderdien negoziazioari buruz, baita azken hauteskunde sindikaletan ordezkari kopuru nabarmena lortu duten sindikatuak hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko hitzarmenaren jarraipen batzordean sartzeari buruz ere. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2008ko azaroaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,  
Nafarroako Gobernua premiatzen da  
kanabisaren erabilera terapeutikoa  
baimentzeko eman beharreko  
urratsak eman ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar dena egin dezan kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko, botika

gisa, beste herrialde batzuetan egun erabiltzen den bezala, eta landarearen aterakin estandarizatu gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu drogaren aurkako kontrol-sistema eragingarriagoak gara ditzan, zirkulazio-kontroltan kanabisa kontrolatzeari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako osasun sareak ikerketak eta entsegu klinikoak egin ditzan substantzia horiekin eta Nafarroako osasun sisteman kanabisaren erabilera sar dezan, beste autonomia erkidego batzuetan egiten den bezala.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du administrazioen eta herritarren taldeen artean drogen arloko egungo politikari buruz eztabaida egitearen alde dagoela.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du drogei buruzko informazio gune bat zabal dezan interneteko espazio egoki baten bidez.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2008ko azaroaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, alpatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta modu egokian tratatzeko protokoloaren gaineko balantze bat igor dezan, Parlamentuan onetsitakoari jarraikiz**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean igor dezan Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Gaietako departamentuen arteko jarduketako protokoloaren garapeneren balantzea, hala onetsi baitzuen Parlamentuak, gai horretako aurrerabidea ikusi ahal izateko eta kaltetuen elkarteei horren berri eman ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haur eta gazteentzako arretarako zerbitzu bat sor dezan, Erriberan zerbitzu ematen duen buru osasuneko zentroaren menpekoa.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Errege Bardea mendi publikoaren jabetza Nafarroaren ondasun higiezin gisa inskribatzeko"

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2008ko azaroaren 5ean egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzeko duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurkako jarrera agertzen baita.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarrekin ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Espainiako Gobernua premiatzen da indargabetu dezan Nafarroako Errege Bardearen zati bat defentsa nazionalerako lehentasunezko interesgune deklaratzeko duen dekretua, eta tiro poligono militarra mantentzearen aurkako jarrera agertzen baita."

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2008ko azaroaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko ea egia den Nafarroako Gobernuak luzatu egin nahi duela Osasuna futbol taldearen zelaian “Reyno de Navarra-Nafarroako Erresuma” goiburua erabiltzeko hitzarmena.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea egia den Nafarroako Gobernuak luzatu egin nahi duela Osasuna futbol taldearen zelaian “Reyno de Navarra-Nafarroako Erresuma” goiburua erabiltzeko hitzarmena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, “Nafarroako Erresuma” leloaren babesletza-ekintza dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Egia al da Nafarroako Gobernuak “Reyno de Navarra-Nafarroako Erresuma” goiburua Osasuna futbol taldearen futbol zelaian erabiltzeko hitzarmena beste hiru urtez luzatzeko asmoa duela, 4,5 milioi euro horretarako bideratuz?

Iruñean, 2008ko azaroaren 10a

Foru Parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua aztertzen ari ote den PFEZaren deflaktazioa eta eragingo lituzkeen ondorioak.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua aztertzen ari ote den PFEZaren deflaktazioa eta eragingo lituzkeen ondorioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernua aztertzen ari al da PFEZaren deflaktazioa? Hala bada, zenbatekoa izanen da deflaktazioa eta nortzuk izanen dira onuradunak?

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer asmo duen hezkuntza arloko mahai sektorialari dagozkion alderdien negoziatioari buruz, baita azken hauteskunde sindikaletan ordezkari kopuru nabarmena lortu duten sindikatuak hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko hitzarmenaren jarraipen batzordean sartzeari buruz ere.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer asmo duen hezkuntza arloko mahai sektorialari dagozkion alderdien negoziatioari buruz, baita azken hauteskunde sindikaletan ordezkari kopuru nabarmena lortu duten sindikatuak hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko hitzarmenaren jarraipen batzordean sartzeari buruz ere.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du 2008ko maiatzaren 30ean. Izenpetzen duenak honako txostena egin du hari erantzuna emateko:

1.- Hezkuntza Departamentuak hezkuntza arloko mahai sektorial honi dagozkion alderdien negoziatioari buruz daukan asmoari dagokionez:

Nafarroako administrazio publikoetako langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileko 83. artikulua kasuko mahaietan negoziatio-rako gai izanen diren arloak ezartzen ditu. Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak unibertsitatez kanpoko langile irakasleen mahai sektorialarekin kontsultatuko ditu planteatzen diren gai guztiak, betiere aipatu artikulua esparruan sartzeko direnak.

2.- Azken hauteskunde sindikaletan ordezkari kopuru nabarmena lortu duten sindikatuei hezkuntza hitzarmenaren jarraipen batzordean sarbidea emateari buruz Hezkuntza Kontseilariak dauzkan asmoei buruz:

Nafarroako administrazio publikoetako langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileko 84.2 artikulua ezartzen du “alderdiek erabakirik, itunen eta hitzarmenen jarraipen batzordeak” era daitezkeela. “Ordezkaririk gehienek izenpetu ez dituzten itun eta hitzarmenak izanez gero, ez daitezke jarraipen batzordeetatik bazter kasuan kasuko mahai orokor edo sektorialean

dauden erakunde sindikalak, haiek izenpetu ez badituzte ere.”

Transkribatutako artikulutik ondoriozta daitekeen bezala, batzordea sortzea edo hartan hura sinatu ez duten erakundeak sartzeari edo ez sartzeari, sindikatuen gehiengoak hura sinatu badute, aldeek erabaki beharko dute.

Horri dagokionez, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere aldetik erabaki sinatu ez duten erakundeak sartzeari. Izan ere, hori sinatzaileek erabaki beharko dute.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna.

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, gai hori dela eta, zenbait galdera egin ditu:

Hasteko, esan beharra dago ezin dela berez “apopilo-etxe babestuak” deituriko baliabide bati buruz hitz egin; izan ere, hori ez dago jasota maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan, zeinak garatzen baitu gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 9/1990 Foru Legea. Hain zuzen ere, lege horrek gizarte zerbitzuen arloan egun dauden zerbitzu guztien sailkapena biltzen du.

Izen hori eman ohi zaie pertsona ezgaituak (gehienak adimen gaixotasunen ondoriozko ezgaitasunekin) bizi diren lojamenduei, eta galdera horri buruzkoa dela uste dugu.

Pertsona horiei, dauzkaten ezaugarriak direla eta, Nafarroako Menpekotasun Agentziak kudeaturiko prestazio ekonomikoak ematen zaizkie zenbait kasutan. Zehazki, gizarte zerbitzuen arloko banakako eta familiako prestazioak eta laguntzak arautzen duen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuak arauturiko laguntza da. Izan ere, laguntza horiekin “errotze sozial eta geografikoari eutsi nahi zaio, pertsonak zentroetan sartzeari ekiditeko, pertsona horiek dituzten zailtasunen funtsa diru baliabide aski ez izatea denean”.

Aipatu pertsonen laguntza horiek banaka jasotzen dituzte. Haiekin lojamendu horietako egonaldia ordaintzen lagundu nahi da, eskaintzen diren zerbitzuen onurak har ditzaten (lojamendua, mantenua, arropa-garbiketa...).

Departamentuak ez die inoiz dirulaguntzarik emanen apopilo-etxeei. Hala eta guztiz ere, kasuren batean eta aparteko izaeraz, adimen osasuneko etxeek edo auzo unitateek –laguntza horien eskariak handik heldu baitira– emaniko txostentan jasotako kasuan kasuko inguruabarrengatik (ludopatiak, toxikomaniak, diruaren erabilera okerra...), apopilo-etxeei zuzenean ordaindu zaizkie banakako laguntzak, horrekin bermatzeko xede duten helbururako erabiliko direla.

Horri dagokionez, laguntza horien xede-izaera kontuan hartuta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak haien erabilera egokia gainbegiratzen du. Gainera, laguntza horien hartzaileak diren pertsonen eta, oro har, adimen gaixotasuneko arazoak izan eta establezimendu horietan bizi diren pertsonen jarraipena egiten diete kasuko adimen osasuneko zentrokek edo/eta oinarritzko gizarte zerbitzuek.

Bestalde, aipatu beharra dago idazki honetan aipatzen den establezimendu-mota hori Iruñean baizik ez dagoela, departamentu honek dakienez.

Azkenik, esan beharra dago Nafarroako Gobernuak berriki onetsi duen gizarte zerbitzuen zorroak ez duela bere prestazioetan jasotzen "apopilo-etxe babestuen" izena edo ezaugarriak duenik.

Badaude, ordea, bestelako egoitza-baliabide batzuk, adimen gaixotasunen bat duten pertsonen

zuzenduak; esate baterako, egoitza-etxeak edo tutoretzako pisuak. Horien xedea da, adimen osasunaren arloan eskumena duten zerbitzuen iritzia-rekin bat, pertsona horien premiei erantzuna ematea, betiere gaitasun juridiko osoa duten pertsona horien borondatea errespetatuz.

Bestalde, esan beharra dugu gaur egun departamentuan lanean ari garela mintzagai ditugun ezaugarriak dituzten pertsonentzako pilotatze-esperientzia bat abian jartzeko, gizarte-alokairuko pisuetan, betiere etxebizitza sozialen programaren barruan eta Esku-hartze Soziokomunitarioko taldeak gainbegiratuta.

Iruñean, 2008ko ekainaren 30ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	